

BESTELAKO XEDAPENAK

INGURUMEN ETA LURRALDE POLITIKA SAILA

2014

EBAZPENA, 2015eko maiatzaren 4koa, Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren zuzendaria, zeinaren bidez jendurrean jartzen baita ondokoa: Toloño-Kantabria mendilerroa (ES2110018) Kontserbazio Bereziko Eremu (KBE) izendatzea, eta hari dagozkion helburuak eta kontserbazio neurriak, eta Arabako hegoaldeko mendilerroak Hegaztientzako Babes Bereziko Eremuarenak (HBBE, ES0000246).

Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuaren 2015eko apirilaren 21eko Aginduaren bitartez honako hau erabaki da: aldeztu aurretik onestea Toloño-Kantabria mendilerroa Kontserbazio Bereziko Eremu (KBE, ES2110018) izendatzen duen eta hari dagozkion kontserbazio neurriak eta Arabako hegoaldeko mendilerroak Hegaztientzako Babes Bereziko Eremuarenak (HBBE, ES0000246) onartzen dituen dekretu-proiektua.

Xedapen orokorrak egiteko prozedurari buruzko abenduaren 22ko 8/2003 Legeko 8.1 artikulua-rekin bat, eta apirilaren 15eko 1/2004 Legegintza Dekretuaz onartutako Natura Babesteari buruzko testu bategineko 22.2 artikulua-rekin bat, ingurumena babesteko helburua duten irabazi-asmorik gabeko erakundeek eta administrazioen entzunaldi-izapideak egin behar dira; horrez gain, eremuen izendapenak jendurrean jarri behar dira, honako hauek adierazita: lekuaren kartografia mugapenarekin, izendapenak justifikatzen dituzten batasunaren intereseko habitat motak eta flora eta fauna espezieak, horien kontserbazio-egoeraren balorazioa, lekuak kontserbatzeko helburuak eta arauak, eta jarraipen programak.

Horregatik guztiagatik, Ingurumen eta Lurralde Politika Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzeko apirilaren 9ko 196/2013 Dekretuko 6.e) artikuluan xedatutakoarekin bat, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Jendurrean jartzea honako hau: Arabako Lurralde Historikoko Toloño-Kantabria mendilerroa (ES2110018) Batasunaren Garrantzizko Lekua (BGL) Kontserbazio Bereziko Eremu (KBE) izendatzea, hari dagozkion helburuak eta kontserbazio neurriekin, eta Arabako hegoaldeko mendilerroak Hegaztientzako Babes Bereziko Eremuarenak (HBBE); jendurrean jarriko dira EHAAn iragarki hau argitaratu eta biharamunetik, 2015eko uztailaren 9ra arte. Epe horretan, egoki irizten dieten alegazioak aurkeztu ahal izango dituzte interesdunek.

Bigarrena.– Aurreko paragrafoan xedatutakoaren ondorioetarako, epe horretan dokumentazioa ikusgai izango da, bai egoitza elektronikoa (www.euskadi.eus/natura2000), bai EAEko Administrazio Orokorraren Ingurumen eta Lurralde Politika Saileko Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritzan, jendurreko ordutegian, helbide honetan:

2015eko maiatzaren 8a, ostirala

Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritza.
Ingurumen eta Lurralde Politika Saila.
Eusko Jaurlaritza.
Donostia kalea, 1.
01010 Vitoria-Gasteiz.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko maiatzaren 4a.

Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren zuzendaria,
AMAIA BARREDO MARTÍN.